

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**13490** *32/2020 Errege Lege Dekretua, azaroaren 3koa, Langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreari laguntzeko gizarte-neurri osagarriak onartzen dituena.*

I

Osasunaren Mundu Erakundeak 2020ko martxoaren 11n nazioarteko pandemia deklaratu zuenetik, bilakaera azkarra izan da COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoeraren ezaugarria, bai nazioan, bai nazioartean; horren ondorioz, berehalako neurri eraginkorrak hartu behar izan ziren aurrekaririk gabeko eta larritasun handiko osasun-krisi honi aurre egiteko. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoerari esker, osasun-larrialdiko egoerari ekin ahal izan zitzaion, herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko, gaixotasunaren hedapenari eusteko eta Osasun Sistema Nazionala indartzeko neurrien bidez.

Beharrezkoak ziren euste-neurri horiekin batera, harrezkero izaera ekonomiko eta sozialeko beste batzuk ere adostu izan dira, bermatzen dutenak, osasun-erantzun egokia emateaz gain, familia, langile eta kolektibo kalteberei babesa emango zaiela, betiere ekoizpen- eta gizarte-ehunari eutsiz, inpaktua minimizatuz eta jarduera ekonomikoaren suspertzea erraztuz.

Ekainaren 21ean amaitu ziren deseskalada-prozesua eta pandemiari erantzuteko deklaraturako lehen alarma-egoeraren indarraldia, eta herrialdea normaltasun berriaren etapan sartu zen. Fase horretan, hainbat neurri hartu behar izan ziren pandemiari aurre egiten jarraitzeko eta kasu-kopuruak gora ez egiteko. Helburu horrekin onartu zen 21/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 9koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurriena, non ezartzen baitira normaltasun berri horretan mantendu behar diren prebentzio- eta kontrol-neurri orokorrak.

Hala ere, pandemia ez da behin betiko gainditu, eta uste baino intentsitate handiagoarekin mantentzen da. Horren ondorioz, agintari eskudunek berriz ere neurri zorrotzagoak aplikatu dituzte herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko eta gaixotasunaren progresioa geldiarazteko. Urriaren 9ko 900/2020 Errege Dekretuak, zeinaren bidez alarma-egoera deklaritzen baita SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen kontrolik gabeko transmisioa dela-eta arrisku bereziko egoerei erantzuteko, Madrilgo Erkidegoko udalerrri jakin batzuetara mugatu zuen bere aplikazioa; ondoren, SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaritzen duen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera deklaratu zen lurralde nazional osoan.

Pandemiaren bilakaerak exijitu du, halaber, neurri berriak onestea krisi sanitarioak eragindako ondorio sozioekonomikoak arintzeko eta jarduerari eutsiko zaiola bermatzeko. Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, luzatu egin ziren COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusitako salbuespenezko neurriak, ezinbesteko arrazoiek eta COVID-19arekin lotutako arrazoi ekonomikoek, teknikoek, antolamendukoek eta ekoizpenekoek eragindako kontratu-etetei eta lanaldi-murrizketei buruzkoak, bai eta neurri horiei lotutako langabezia-babesaren eta kotizazioen arloko aparteko neurriak ere. Era berean, neurri berriak hartu ziren krisi ekonomikoak Gizarte Segurantzaren arloan langile autonomoentzat dituen ondorioak arintzeko. Bestalde, Urrutiko Lanaren irailaren 22ko 28/2020 Errege Lege Dekretuak besteren konturako lana egiteko modu hori arautu zuen, pandemiak iraun bitartean jarduera ekonomikoari eusteko mekanismo eraginkor gisa lehentasunezkoztat jo dena. Ildo beretik, irailaren 29ko 29/2020 Errege Lege Dekretuak (Administrazio

publikoetan telelana arautzeko presako neurriena eta Osasun Sistema Nazionaleko giza baliabideena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egitekoa) administrazio publikoaren funtzionamendu normala bermatu nahi zuen, enplegatu publikoaren lana antolatzeko eta egituratzeko modu berriak bultzatuz, interes orokorrei zerbitzu hobea emateari begira.

Egungo testuinguruan, beharrezkoa da langabeziatik babesteko eta kultura-sektoreko langileei laguntzeko neurri gehigarriak hartzea.

## II

Langabeziatik babesteko hainbat gizarte-neurri onartu diren arren –COVID-19ak eragindako osasun-larrialdia dela medio okupazioa aldi baterako edo behin betiko galtzeak ekarri duen diru-sarreraren murrizketaren ondorioak arintzeko, jardueretan murriztapenak egin edo jarduerak gerarazi ere gerarazi baitira–, oraindik ere pertsona askok ezin izan dituzte baliatu neurri horiek.

Horixe gertatu zaie martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoerak iraun bitartean eta baita ondoren ere langabezia-prestazioak jasotzen ari ziren pertsona batzuei, prestazioak agortu baitzaizkie beste laguntza batzuk eskuratu gabe eta, are larriagoa dena, lana bilatzeko eta lan-munduan sartzeko aukerarik izan gabe, bai alarma-egoerak iraun bitartean osasun-larrialdia aurre egiteko ezarritako murrizketen ondorioz, bai, geroztik, kontratuak etenda dituzten plantillako langileak berriro lanean hasteko zailtasun handiak izaten ari diren sektore jakin batzuetan jarduera geldiaraztearen beraren ondorioz.

Egoera horiek denboran zenbat luzatzen ari diren kontuan hartuta, Enplegua suspertzeko eta lan autonomia babesteko gizarte-neurrien eta industria-sektorearen lehiakortasunaren ekainaren 26ko 24/2020 Errege Lege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriak ezarri zuen Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa ahalik eta lasterren bilduko zela gizarte-eragileekin, gizarte-elkarrizketaren esparruan honako alderdi hauei irtenbidea emateko: aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean ez dauden pertsonak alarma-egoerak iraun bitartean langabezia-prestazioak eta -subsidioak kontsumitu izanari, eta prestazioak jasotzearekin bateragarriak ziren lanaldi partzialeko lanak egiten zituzten pertsonen egoerari; izan ere, legea ezohiko egoera horretara egokitu ez denez, gutxitu egin dira prestazio eta subsidio horien zenbatekoak, halako puntutaraino non askotan, prestazioek ez duten lortzen ezta arintzea ere diru-sarreretan gertaturiko galera.

Deskribaturako egoerei buruzko gizarte-elkarrizketako prozesuaren emaitza gisa, Laneko eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak eta ordezkaritza handieneko sindikatu-erakundeek eta enpresaburu-elkarteek akordioa egin dute ezohiko subsidio berezi bat garatzeko, egoera horien estaldura egokia bermatuko duena eta errege lege-dekretu honetan ere jasotzen dena.

## III

Pandemia hasi zenetik, krisiak bereziki eragin du kulturaren sektorean. Horrek berekin ekarri zuen esparru horretarako ezohiko neurri berariazkoak ezartzea, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen dituen maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren bitartez. Horien artean, ikuskizun publikoetan aritzen diren artistei langabezia-prestazioa jasotzeko ezohiko irispidea ezarri izana nabarmentzen zen. Kolektibo hori bereziki kaltebera da egun dauden inguruabarretan; izan ere, jarduera artistikoaren bereizgarri den aldizkakotasuna dela-eta, langile horiek ez dira iristen araubide orokorraren arabera langabezia-prestazioa eskuratzeko nahitaezkoak diren baldintzak betetzera.

Hala ere, kulturak, beste jarduera-sektore batzuk bezala, krisiaren ondorioak jasaten jarraitzen du, baita agintariak krisiari aurre egiteko adostutako mugak ere. Muga horiek eragotzi egiten dute kultur ikuskizunak normaltasunez garatzea, eta, beraz, baita artisten

kolektiboak egin litzakeen jarduerak ere; horrenbestez, kolektibo horrek ezin du bere lanbidea garatu.

Gizarte Segurantzako Sistemari afiliatuta dauden langileen fitxategien hileroko ustiapenetik datozen azken datuen arabera, sorkuntza artistikoko eta ikuskizun artistikoetako jardueren multzoan, 2020ko irailaren amaieran, 22.657 pertsona zeuden alta emanda Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean; hau da, afiliatu kopurua % 29,8 jaitsi da, 2019ko irailaren amaierako kopuruarekin alderatuta.

Beharakada hori oso handia izan zen arte eszenikoetan eta arte eszenikoen jarduera osagarrietan. Zehazki, arte eszenikoetan, 2020ko irailaren amaieran, 13.121 afiliatu zeuden alta emanda, hau da, % 29,9 gutxiago, 2019ko irailaren amaierako datuarekin alderatuta; jarduera osagarrietan, berriz, 4.640 afiliatu zeuden, hau da, % 29,8 gutxiago, 2019ko iraileko datuarekin alderatuta.

Kulturako profesionalak beren jardueran aritzeak berezitasunak ditu, eta berezitasun horiek direla-eta askotan gertatzen da haientzat ez direla eraginkorrak izaten langileak babesteko mekanismo orokorrak. Jarduera horri datzekion jarraitutasunik ezak zaildu egiten du, oro har, langabezia-prestazio arrunta jasotzea, eta horrek justifikatu zuen profesional horientzat ezohiko irispidea aitortzea maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuan. Era berean, Nekazaritzaren, zientziaren, ekonomiaren, enplegu eta Gizarte Segurantzaren eta zergen arloetan COVID-19aren ondorioak arintzeko neurri osagarriak hartzen dituen maiatzaren 26ko 19/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, borondatezko jarduerarik gabeko aldiaren egotearen baldintza kendu zen, horrek langileari ekarriko liokeen kostua kenduz eta prestazioaren izapidetzea eta aintzatespena erraztuz.

Pandemiaren eta euste-neurrien bilakaeraren ondorioei eta sektorearen beraren aldizkakotasunari maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuan jasotako prestazioen berehalako epemuga gehitu behar zaie. Xedapen horretan aurreikusitako langabezia-prestazioaren iraupena 120 edo 180 egunekoa zen, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri aurreko urteko jarduera-egunen arabera. Une honetan, eta aitortutako prestazio-aldia amaitzeko pronto baitago, langile horien babesa bermatu beharra dago, ezinbesteko langileak baitira herritar guztien kulturarako sarbidea bermatzeko botere publikoek daukaten betebeharra gauzatzeko.

Era berean, beste kolektibo batzuk ere babestu behar dira; hain zuzen ere, beren lanbidearen ohiko jardunaren berezitasunengatik zailtasunak dituztenak estaldura-mekanismo orokorretan sartzeko. Esate baterako, kultura-ikuskizunak eta -jarduerak egiteko ezinbestekoak diren zerbitzu teknikoak ematen dituzten langileak, zeinek artisten jardueraren aldizkakotasuna eta jarraitutasunik eza partekatzen baitute. Hori dela eta, ezin dituzte langabezia-prestazio arruntak jaso, eta prestazio horiek jaso ahal izateko mekanismo bat antolatu beharra dago.

Era berean, zezenketako profesionalari eragin zien, hasiera batean, zezenketetarako plaza, barruti eta instalazioetako jarduerak eten izanak, bai eta, ondoren, osasun-agintari eskudunek erabakitako euste- eta mugatze-neurriek ere. Muga horiek, gainera, jaiegun gehien izaten diren hilabeteetan iraun dute, eta, beraz, zezenketen arloko langileentzako jardura handieneko aldiaren. Horrek zaildu egin die, beraz, langabezia-prestazioetarako eskubidea sortzeko beharrezkoa den denboran lan egitea eta kotizatzea. Horri, bestalde, kotizazio-egunen zenbaketaren espezifikotasuna gehitu behar zaio abenduaren 24ko 2621/1986 Errege Dekretuari jarraituz; izan ere, errege-dekretu horren bidez Gizarte Segurantzako araubide berezi batzuk (trenbideetako langileena, futbolariena, merkataritzako ordezkariena, toreatzaile eta artistena) araubide orokorrean sartzen dira eta liburu-idazleen araubidea norberaren konturako langileen edo autonomoen araubide berezian sartzen da.

Beraz, ezinbestekoa da kultura-sektoreko langileen egoera babestuko duten gizarte-neurri berriak onartzea, oro har ezarritakoen eta maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuan jasotakoen osagarri gisa.

## IV

Errege lege-dekretu honek lau artikulua ditu (bi kapitulutan banatuak), bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bakarra eta lau azken xedapen.

I. kapituluak, langabeziagatiko ezohiko babes-neurriei buruzkoak, 1. artikulua hartzen du. Bertan, ezohiko langabezia-subsidio berezi bat sartzen da, laurogeita hamar eguneko, langabeziagatiko babes-ekintzaren barruan jasotako prestazioa, subsidioa edo laguntza martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-aldian agortu zuten pertsonentzat. Subsidio hori jasotzeko, ez da beharrezkoa izango itxarote-epea betetzea, ez errentarik ez dagoela egiaztatzea, ezta urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginean oro har araututako familia-erantzukizunik dagoela egiaztatzea ere.

II. kapituluak, zeina arte eszenikoetan eta ikuskizun publikoetan diharduten artisten eta beste profesional batzuen langabeziagatiko laguntza- eta babes-neurriei buruzkoa baita, hurrengo hiru artikulua jasotzen ditu.

2. artikulua luzatu egiten du maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan ikuskizun publikoetako artistentzako ezarri zen prestazio ekonomikoaren iraupena. Horrela, eskubide hori dutenek, errege lege-dekretu horretan ezarritakoaren arabera, prestazio hori jasotzen jarraitu ahal izango dute 2021eko urtarrilaren 31ra arte. Gainerako guztian, arau horretan jasotako erregulazioa aplikatuko da.

3. artikuluan, salbuespenezko langabezia-subsidio bat ezartzen da kulturaren sektoreko teknikarientzat eta laguntzaileentzat; izan ere, besteren konturako langileen kolektibo horrek salbuespenezko subsidio hori jaso ahal izango du. Subsidioa aitortzeko, kontuan hartzen dira, besteak beste, EJSN kodearen arabera zerbitzuak eman diren jarduera-sektoreak eta 2019ko abuztuaren 1etik kotizatutako okupazio-aldia, eta eskatzen da gutxienez 35 egun egon izana Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean. Kasu horretan, subsidioak hiru hilabete iraungo du.

Halaber, 4. artikulua aparteko gaikuntza ematen die, 2021eko urtarrilaren 31ra arte, langabezia-prestazio kontributiboa jasotzeko, hala eskatzen duten eta 2019ko abenduaren 31n abenduaren 24ko 2621/1986 Errege Dekretuaren 13.2.a) artikuluan aipatzen den aktiboen erroldan agertzen diren zezenketako profesionalei. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 266. artikuluko baldintzak betetzeko, legezko langabezia-egoeran daudela aitortuko zaie, bai eta gutxieneko kotizazio-aldia beteta dutela ere.

Bestalde, lehenengo xedapen gehigarriak ezabatu egiten du enplegu-bilaketa aktiboa egiaztatzeko beharra, ekonomia- eta enpresa-jardueraren sektore batzuetan geldialdiak irauten duen bitartean eta COVID-19tik eratorritako ezinbesteko arrazoiaren ondoriozko aldi baterako enplegu-erregulazioko prozedurek indarrean jarraitzen duten bitartean, zeren eta enpresek zailtasun handiak baitituzte beren plantilletan langile berriak sartzeko; beraz, aldi baterako ez da eskatuko laneratzeko errenta aktiboa edo ezohiko langabezia-subsidioa eskuratzeko aurreikusitako betekizun hori.

Bigarren xedapen gehigarriaren bidez, aldizkako langile finkoen langabezia-subsidioaren iraupena egokitzen da haien jarduera gauzatzeak dauzkan berezitasunetara eta COVID-19tik eratorritako inguruabarretara; hori dela eta, subsidioaren iraupena zehazteari dagokionez soil-soilik, kotizatutzat hartuko dira pandemiagatik izan ez balitz jarduerakoak izango lirakekeen aldiak, horren barne direla, beraz, maila kontributiboko eta asistentzialeko langabezia-babesa jaso zuten aldiak.

Era berean, xedapen iragankor bakarrik ezartzen du zer araubide aplikatu behar zaien errege lege-dekretu hau indarrean jartzean, maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan babesean, aurkeztuta dauden edo aldeko ebazpena jaso duten langabezia-prestazioen eskaerei.

Era berean, azken xedapenetako lehenengoak aldaketa bat sartzen du irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan, zeina jarduerarako oztopo edo mugengatiko aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei eta espediente horiek Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 47.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera baimentzeari buruzkoa baita (testu bategin hori urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen). Irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren

ondoren, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretua promulgatu berri da, eta, haren arabera, agintariak murrizketa-neurri berriak hartu ahal izango dituzte ebaluazio epidemiologikoa dela eta; berragerraldiak eta horiek hainbat sektoretako enpresen jardueran dituzten ondorioak aintzat hartuta, litekeena da lan-arloko agintariei baimen berriak aurkeztu behar izatea pandemiaren hasierakoen antzeko baldintzetan.

Ezinbestekoa da, horrenbestez, enplegu-erregulazioko espedienteen izapidetzea bizkortzeko beharrezkoak diren mekanismo guztiak ezartzea, nahitaezkoak diren segurtasun- eta gardentasun-dosiak erabiliz espedienteak izapidetzean eta ebaztean, eta, horretarako, aurrekari bat izango da: COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22.2.d) artikuluan Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren txostena aukerakoa izateari buruz sartutako aldaketa.

Azkenik, azken xedapenetako bigarrenetik laugarrenera, eskumen-titulua, erregelamendua garatzeko eta betearazteko gaikuntza eta errege lege-dekretua indarrean jartzeko eguna jasotzen dira, hurrenez hurren.

## V

Konstituzioaren 86. artikulua arabera, Gobernuak errege lege-dekretuak eman ditzake, «aparteko eta presako beharrezana» dagoenean, baldin eta xedapenok ez badute eraginik ez Estatuaren oinarrizko erakundearen antolamenduan, ez Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, ez eta autonomia-erkidegoen araubidean eta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.

Errege lege-dekretua, Konstituzioaren arabera, zilegizko tresna da, baldin eta presako legegintza justifikatzen duen helburua honako hau bada: Gobernuaren helburuen barruan, egoera jakin bat diruz laguntzea, aurreikusteko zailak diren arazoak direla-eta berehala araugintza-ekintza bat egin behar bada, legeak Parlamentuan izapidetzeko bide normalak edo presako prozedurak eskatzen duena baino epe laburragoan, are gehiago prozedura hori Gobernuaren esku ez badago. Helburuak halakoa izan behar duela behin eta berriz galdegin du Konstituzio Auzitegiak, honako epai hauen bitartez: 6/1983 epaia, otsailaren 4koa, 5. oinarria; 11/2002 epaia, urtarrilaren 17koa, 4. oinarria; 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 3. oinarria, eta 189/2005 epaia, uztailaren 7koa, 3. oinarria.

Zalantzarik batere gabe, Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikuluan deskribatutako kasuaren barnean sartzen dira osasun-krisia, pandemiak ekonomian duen eragin larria, kultura-jarduerak garatzeko zailtasuna –are ezintasuna ere– eta langile guztiei eta bereziki kultura-sektorekoiei zuzendutako neurri eta laguntza publikoak mantentzeko eta indartzeko beharra. Gainera, Konstituzio Auzitegiak ontzat jo du neurri ekonomikoak errege lege-dekretuen bidez hartzea, baldin eta esplizituki eta arrazoituz justifikatzen badira bai beharra (hau da, egoera ekonomikoak azkar erantzutea eskatzea) eta bai presa (hau da, dena delako neurria arauzko bide arrunta erabiliz izapidetu eta denboran atzeratzeak kalteren bat ekartzeko arriskua izatea).

Halaber, errege lege-dekretu hau onartzeko aparteko eta presako beharrezana judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkio (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018 epaia, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014 epaia, irailaren 11koa, 3. oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia, 2208-2019 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa), segurtasun juridikoan eta osasun publikoan jarriz arreta. Azaldu berri diren egokitasun-arrazoiek erakusten dute errege lege-dekretu hau onartzeak ez duela esan nahi, inolaz ere, konstituzio-tresna hori abusuz edo modu arbitrarioan erabili denik (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018 epaia, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 100/2012 epaia, maiatzaren 8koa, 8. oinarri juridikoa; 237/2012 epaia, abenduaren 13koa, 4. oinarri juridikoa; 39/2013 epaia, otsailaren 14koa, 5. oinarri juridikoa). Aitzitik, azaldutako arrazoi guztiek justifikatzen dute arau hau onestea, zeren eta arauak erantzuten baitio COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari berehala heltzen lagunduko duten neurriak onartzeko helburu legitimoari (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri

juridikoa; 111/1983 epaia, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa).

Errege lege-dekretu honek, gainera, ez du eraginik izango Estatuaren oinarrizko erakundeen antolamenduan, Espainiako Konstituzioaren I. tituluak arautzen dituen herritarren eskubide, eginbehar eta askatasunetan, autonomia-erkidegoen araubidean, ezta hauteskunde-zuzenbide orokorrean ere.

Beraz, hartzen diren neurriek, haien izaera eta xedea ikusirik, bete egiten dituzte Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua errege lege-dekretuak onartu ahal izateko eskatzen dituen aparteko eta presako beharrezaren baldintzak.

## VI

Errege lege-dekretu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak galdegiten dituen printzipioekin: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Horren ildotik, errege lege-dekretu honek premia- eta efikazia-printzipioak betetzen ditu; izan ere, ezartzen diren neurrien oinarrian interes orokorra dago, eta errege lege-dekretua da hori lortzeko tresnarik egokiena.

Errege lege-dekretua bat dator proportzionaltasun-printzipioarekin, aurrez aipatutako helburuak lortzeko behar-beharrezkoak diren arauak baizik ez baititu ezartzen. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa betetzen du, bat baitator gainerako ordenamendu juridikoarekin. Gardentasun-printzipioari dagokionez, araua salbuetsita dago kontsulta publikoaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak betetzetik, zeren eta lege-dekretuak izapidetzeko eta onartzeko ez baitira aplikatu behar. Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, errege lege-dekretu honek bere helburuak lortzeko beharrezkoak diren administrazio-kargak ezartzen ditu.

Errege-lege dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.13 eta 149.1.17 artikuluetan ezarritakoaren babesean ematen da, zeinen bidez Estatuari esleitzen baitzaio jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren arloko eskumen eskusiboa, bai eta Gizarte Segurantzaren oinarrizko legeriaren eta araubide ekonomikoaren gaineko eskumen eskusiboa ere, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegokoek betearazi ahal izatea haren zerbitzuak.

Horrenbestez, Espainiako Konstituzioaren 86. artikuluko baimenez baliatuz, Kulturako eta Kiroleko ministroaren eta Laneko eta Gizarte Ekonomiako ministroaren proposamenari jarraikiz eta Ministro Kontseiluak 2020ko azaroaren 3ko bileran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

## XEDATZEN DUT:

### I. KAPITULUA

#### **Langabeziatik babesteko ezohiko neurriak**

##### 1. artikulua. *Langabezia-subsidio berezia.*

1. Langabezia-subsidio berezi bat ezartzen da, ezohiko izaera duena eta Gizarte Segurantzako Sistemaren langabeziagatiko babes-ekintzaren barruan dagoena. Hurrengo apartatuetako baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat izango da subsidio berezi hori.

2. Artikulu honetan araututako langabezia-subsidio bereziaren onuradun izan ahalko dira eskaera egiten duten egunean baldintza hauek betetzen dituztenak:

a) 2020ko martxoaren 14tik 2020ko ekainaren 30era bitartean, biak barne, prestazio hauetakoren bat agortu izana:

1. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategineko III. tituluko II. kapituluan araututa dagoen langabezia-prestazio kontributiboa (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen testu bategin hori).

2. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren III. tituluko III. kapituluan araututako modalitateetako edozeinetan emandako langabezia-subsidioa.

3. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian araututa dagoen ezohiko langabezia-subsidioa.

4. Azaroaren 24ko 1369/2006 Errege Dekretuan araututa dagoen premia ekonomiko bereziak eta enplegua aurkitzeko zailtasunak dituzten langabeak laneratzeko errenta aktiboko programari (RAI) lotutako laguntza ekonomikoak.

b) Erabateko langabezian egotea eta enplegu-zerbitzu publikoan lan-eskatzaille gisa izena emanda egotea.

c) Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren III. tituluan araututa dagoen maila kontributiboko eta asistentzialeko langabezia-babeserako eskubiderik ez izatea, edo 2.a) apartatuan zerrendatutako edozein laguntza edo prestaziotarako eskubiderik ez izatea.

Hala ere, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 274.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, prestazio kontributiboa agortzeagatiko subsidioa eskuratzeko itxarote-hilabetea betetzen ari direnek artikuluko honetan araututako subsidioa eskuratu ahal izango dute, eta, ondoren, garaiz kanpo, baita agortzeagatiko subsidioa ere. Une horretan, egunen kontsumo-arauak aplikatuko dira.

d) Ez izatea gutxieneko errentaren, inklusio-errentaren, gizarte-soldataren edo edozein administrazio publikok emandako antzeko laguntzen onuradunak.

e) Aitortutako azken eskubidea azkendu ondoren besteren kontura lan egin badute, lan hori legezko langabezia-egoeran utzi izatea.

f) Erretiro-pentsio kontributiboa edo ez-kontributiboa jasotzeko eskatzen den adina beteta ez izatea.

3. Subsidio berezia eskuratzeko, ez da beharrezkoa izango hilabeteko itxarote-epaia betetzea, ez eta errenta-gabezia eta familia-erantzukizunak egiaztatzea ere, zeinak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 274.1 eta 275. artikuluetan araututa baitaude, hurrenez hurren.

4. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatuko du subsidio berezia, langabezia-babeseko prestazioetatik eratorritako eginkizunak eta zerbitzuak kudeatzen dituen entitatea den aldetik.

5. Langabezia-subsidio bereziaren eskaera –zeinak berekin ekarriko baitu Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 300. artikuluan aipatzen den jarduera-konpromisoa sinatzea– aurkeztu ahalko da errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta hurrengo egunetik 2020ko azaroaren 30era arte (egun hori barne). Epe hori igaro ondoren aurkeztutako eskaerak ukatu egingo dira.

6. Subsidio berezia jasotzeko eskubidea aitortzen duen ebazpena eman ondoren, onuradunek hura jaso ahalko dute honako paragrafo hauetan ezarritakoaren arabera:

a) Subsidiorako eskubidea eskaera aurkeztu eta hurrengo egunean sortuko da.

b) Subsidioaren gehieneko iraupena laurogeita hamar egun izango da, eta behin bakarrik jaso ahalko da.

c) Subsidioaren zenbatekoa izango da hileko ondorio askotariko errenta adierazle publikoaren ehuneko 80, une bakoitzean indarrean dagoen adierazlea aintzat hartuta.

7. Artikulu honetan berriaz aurreikusi ez den orori dagokionez, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren III. tituluan xedatutakoa beteko da.

## II. KAPITULUA

### **Arte eszenikoetan eta ikuskizun publikoetan diharduten artisten eta beste profesional batzuen langabeziagatikoa laguntza- eta babes-neurriak**

2. artikulua. *Ikuskizun publikoetan aritzen diren eta COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak araututako kontratu-eteteen eta lanaldi-murrizketen prozeduren eraginpean ez dauden artistek langabezia-prestaziorako ezohiko irispidea izaten jarraitzea.*

1. Salbuespen gisa, eta COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiaren ondorioz, maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitako baldintzetan langabezia-prestazio ekonomikoak ohiz kanpo jasotzeko eskubidea duten ikuskizun publikoetako artistek halakoak jasotzen jarraitu ahal izango dute 2021eko urtarrilaren 31ra arte (17/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 5ekoa, zeinaren bidez COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen baitira).

2. Prestazioa bateraezina izango da norberaren konturako edo besteren konturako jarduerak egitearekin, eta beste edozein prestazio, gutxienezko errenta, inklusio-errenta, gizarte-soldata eta edozein administrazio publikok emandako antzeko laguntzak jasotzearekin.

Prestazioa jasotzeko eskubidea aitortu ondoren, eten egingo da eskubidea titularrak bere kontura edo besteren kontura lan egiten duen bitartean. Eskubide hori eteten bada, eten egingo da prestazioaren ordainketa, eta behin lana amaituta, prestazioa jasotzeko geratzen den denboraz hasiko da berriro, gehienez ere 2021eko urtarrilaren 31ra arte.

3. Nolanahi ere, maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, prestazioaren iraupenari buruz ezarritakoa izan ezik, hori 1. apartatuan adierazitako egunera arte luzatuko baita.

3. artikulua. *Salbuespenezko langabezia-subsidioa kulturaren sektoreko teknikarientzat eta laguntzaileentzat.*

1. Salbuespenezko langabezia-subsidio honen onuradun izango dira ekitaldi bat, obra bat edo ikuskizun publiko bat egiteko —bitartekoa edo euskarria edozein dela ere— kultura-sektoreko teknikari edo laguntzaile gisa besteren kontura aldi baterako lan egin duten langileak, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Salbuespenezko subsidioa eskatzen den egunean inskribatuta egotea enplegu-zerbitzu publikoetan enplegu-eskatzaille gisa, eta jarduera-konpromisoa sinatzea.

b) Subsidioa eskatzen den egunean edo eskubidea sortzen den egunean norberaren kontura edo besteren kontura lanaldi osoan lan egiten ez aritzea.

c) Besteren konturako aldi baterako kontratu batean izandako azken lana legezko langabezia-egoeran utzi izana, lana utzi duen egunean norberaren kontura lanean egon gabe.

d) Ez betetzea Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginean langabezia-prestazioetarako eta jarduera uzteagatikoa prestazioetarako aurreikusitako baldintzak, eta COVID-19aren ondoriozko osasun-krisiaren eraginez onartutako langabezia-babeserako ezohiko neurriak baliatu ez izana.

e) 2019ko abuztuaren 1etik errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunera arte, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean gutxienez hogeita hamabost eguneko okupazio-aldi kotizatu bat egiaztatzea, aurreko eskubide bat aitortzeko zenbatu ez dena; gainera, beharrezkoa izango da aldi horretan besteren konturako teknikari edo laguntzaile gisa lan egin izana kode hauetan jasotako jardueretako batean sartuta dauden kultura-sektoreko enpresentzat: EJSN 5912, 5915, 5916 edo 5920 kodeak, edo 9001 eta 9004 bitarteko kodeetako bat.



2. Artikulu honetan araututako subsidioaren eskaera aurkezteko epea hamabost egunekoa izango da, errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horren barruan eskatzen bada, errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera sortuko da eskubidea. Nolanahi ere, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den unean bete beharko dira subsidioa aitortzeko eskatutako baldintzak, enplegu-eskatzailerik gisa inskribatuta egoteari dagokiona izan ezik.

3. Langileak lana utzi duen kultura-sektoreko enpresak edo enpresek enpresa-ziurtagiria bidali beharko diote entitate kudeatzaileari, aurrez egin ez badute, Certific@2 delakoaren bidez. Lanpostua utzi zuenetik igarotako denboragatik enpresak ez badu ziurtagiri hori aurkezteko aukerarik, langileak enpresaren egiaztagiri bat aurkeztu beharko du, ekitaldi, obra edo ikuskizun publiko bat egiteko kultura-sektoreko teknikari edo laguntzaile gisa besteren kontura lan egin duela egiaztatzen duena. Enpresa desagertu delako edo hura egiteari ezezkoa eman diolako ezinezkoa bada, nahikoa izango da erantzukizunpeko adierazpen bat egitea, non adieraziko baita enpresan egindako jarduerak 1. apartatuan jasotako baldintzak betetzen dituela.

4. Salbuespenezko subsidioaren iraupena hiru hilabetekoa izango da, eta behin bakarrik jaso ahalko da.

5. Subsidioaren zenbatekoa indarrean dagoen hileko ondorio askotariko errenta-adierazle publikoaren ehuneko 80 izango da, kultura-sektorean besteren kontura lan egindako egunak lanaldi osoak zein lanaldi partzialekoak izan.

6. Salbuespenezko langabezia-subsidioa bateraezina izango da norberaren edo besteren konturako lanaldi osoa lanarekin, bai eta edozein gutxienerako errenta, inklusio-errenta, gizarte-soldata edo edozein administrazio publikok emandako antzeko laguntzak jasotzearekin ere. Bateragarria da, ordea, besteren konturako lanaldi partzialeko lanarekin; kasu horretan, lan egindako denboraren zati proportzionala kenduko da subsidioaren zenbatekotik.

7. Artikulu honetan aurreikusi ez den orotan, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginetako III. tituluan xedatutakoa aplikatuko da.

#### 4. artikulua. *Zezenketaren arloko profesionalen langabezia-prestaziora ezohiko irispidea izatea.*

1. COVID-19tik eratorritako osasun-krisiaren ondorioz, salbuespenez eta aldi baterako, langabezia-prestazio kontributiboa eskuratzeko ezohiko irispidea aitortzen zaie, artikulu honetan aurreikusitako moduan, hura eskatzen duten zezenketako profesionalen, baldin eta bide arruntetik prestazio hori eskuratu ezin izan badute eta 2019ko abenduaren 31n alta emanda agertzen badira abenduaren 24ko 2621/1986 Errege Dekretuaren 13.2.a) artikuluan aipatzen den aktiboen erroldan; izan ere, errege-dekretu horren bidez, Gizarte Segurantzako araubide berezi batzuk (trenbideetako langileena, futbolariena, merkataritzako ordezkariena, toreatzaile eta artistena) araubide orokorrean sartzen dira eta liburu-idazleen araubidea norberaren konturako langileen edo autonomoen araubide berezian sartzen da.

Errege lege-dekretu hau indarrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera sortuko da eskubidea, baldin eta egun horren ondorengo hamabost eguneko epean eskatzen bada. Epe horretatik kanpo eskatzen bada, eskaera egin eta hurrengo egunetik aurrera sortuko da eskubidea.

Prestazio hori eskuratzeko, eskatzaileek, gainera, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 266. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, alta-egoeran edo altarekin parekatutako egoeran egoteko baldintza izan ezik. Ondorio horietarako, eskatzaileak 2019ko abenduaren 31n alta emanda agertzen badira abenduaren 24ko 2621/1986 Errege Dekretuaren 13.2.a) artikuluan aipatzen den aktiboen erroldan, legezko langabezia-egoeran daudela aitortuko zaie, bai eta gutxienerako kotizazio-aldia beteta dutela ere, betiere, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 262. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako langabezia-prestazio kontributibo arrunta jasotzen ari ez badira edo aukeratu badute.

Langabezia-prestazioaren oinarri arautzailea kontingentzia arruntengatik indarrean dagoen gutxieneko kotizazio-oinarria izango da, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko lanbide-kategorien 7. taldeari dagokiona.

2. Prestazioa bateraezina izango da norberaren konturako edo besteren konturako jardueretatik datorren edozein hartukizunekin. Halaber, bateraezina da beste edozein prestaziorekin, gutxieneko errentarekin, inklusio-errentarekin, gizarte-soldatarekin edo edozein administrazio publikok emandako antzeko laguntzekin.

Prestazioa jasotzeko eskubidea aitortu ondoren, eten egingo da eskubidea titularrak bere kontura edo besteren kontura lan egiten duen bitartean. Eskubide hori eteten bada, aldi batez geldituko da prestazioaren ordainketa, eta prestazioa jasotzeko geratzen den denboraz hasiko da berriro, behin lana amaituta.

3. Artikulu honetan araututako langabezia-prestaziorako eskubidea 2021eko urtarrilaren 31n azkenduko da, data horretara arte kontsumitutako eskubide-egunak alde batera utzita.

Azkenzte horrek ez dakar langabezia-prestazio kontributibo bat agortzea, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginean araututako langabezia-subsidioak eskuratzearen ondorioetarako.

*Lehenengo xedapen gehigarria. Laneratzeko errenta aktiboaren programan sartzeko eta ezohiko langabezia-subsidioa eskuratzeko kasuetan, aldi baterako etetea enplegua aktiboki bilatzen aritzea egiaztatzeko baldintza.*

2021eko urtarrilaren 31ra arte, etenda geratzen da azaroaren 24ko 1369/2006 Errege Dekretuaren 2.1.b) artikulua hiru paragrafoan xedatutakoaren aplikazioa (dekretu horren bidez, laneratzeko errenta aktiboaren programa arautzen da, premia ekonomiko bereziak eta enplegua aurkitzeko zailtasunak dituzten langabeentzat), bai eta urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren hogeita zazpigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuko a) eta b) letretan xedatutakoaren aplikazioa ere; hortaz, manu horietan araututako laneratzeko errenta aktiboaren programaren edo ezohiko langabezia-subsidioaren onuradun izateko, eskatzaileei ez zaie eskatuko alde aurretik enplegua aktiboki bilatzeko ekintzak egin dituztela egiaztatzea.

*Bigarren xedapen gehigarria. Aldizkako langile finkoentzako langabezia-subsidioaren iraupena zehaztea.*

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren —zeina urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi baitzen— 277.4 artikuluan aipatzen diren aldizkako langile finkoen langabezia-subsidioaren iraupena zehazteko soilik, lan egindakotzat hartuko dira langile horiek 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25.6 artikuluan aurreikusitako edozein neurriren onuradun izan diren aldiak (8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena).

*Xedapen iragankor bakarra. 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua babesean egin diren edo aldeko ebazpena jaso duten langabezia-prestazioen eskaerak (17/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 5koa, zeinaren bidez COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen baitira).*

1. Maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoaren babesean egin diren langabezia-prestazioen eskaerak (17/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 5koa, zeinaren bidez COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egite aldera kultura-sektoreari laguntzeko neurriak eta zerga-arloko neurriak onartzen baitira), errege lege-dekretu hau indarrean jartzean ebazteke badaude, beronek ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

2. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzean eskaerek aldeko ebazpena jaso badute eta prestazioa agortu ez bada, ofizioz onartuko da haren iraupena luzatzea, 2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

3. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den egunean maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua babesean aitortutako prestazioa agortu duten onuradunek beste eskabide bat aurkeztu ahal izango dute, 2. artikuluan ezarritako aldirako eskubidea aitor dakien.

Azken xedapenetako lehena. *Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Enpleguaren Aldeko Gizarte Neurrien irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluari 2 bis apartatua gehitzen zaio; apartatu hori honela geratzen da idatzita:

«2 bis. 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak izapidetzean, lan-agintaritzak aukerakoa izango du Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren txostena eskatzea».

Azken xedapenetako bigarrena. *Eskumen-titulua.*

Errege-lege dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.13 eta 149.1.17 artikuluetan ezarritakoaren babesean ematen da, zeinen bidez Estatuari esleitzen baitzaio jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren arloko eskumen eskusiboa, bai eta Gizarte Segurantzaren oinarriko legeriaren eta araubide ekonomikoaren gaineko eskumen eskusiboa ere, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegokoek betearazi ahal izatea haren zerbitzuak.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Erregelamendu bidezko garapena eta betearazpena.*

Gobernuari eta ministerio-departamentu guztietako titularrei, bakoitzari bere eskumen-eremuan, ahalmena ematen zaie errege lege-dekretu honetan ezarritakoa garatu eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

Azken xedapenetako laugarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Madriren, 2020ko azaroaren 3an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN